


# OSTADAR S.K.T.

2023/2024

# Bizipoza

Bizipoza, hori da aurtengo hitza. Ospakizunekin jarraitzen dugu. Urte amaieran Elkartearen 40.urteurreneko ospakizunei amaiera eman genien. Eta aurten Ipar Martxa atalaren 10.urteurrena ospatuko dugu. Aurreneko denboraldian dragoneradun bastoiak arrotzak egiten zitzaizkigun arren, askok gerturatu ziren kirol hau ezagutzera eta praktikatzera. Ipar martxako taldearen dinamika kirolaz haratago doa, kirolaz baliatuz hainbat balio lantzen dituztelako, elkartasuna, auzolana, euskara, inklusioa, besteak beste. "*Urratsez urrats*" zuen leloari heldu eta jarraitu "*hesiak hausten eta gizartea elkarrekin eraldatzen*".

Beltzak Errugbi Taldeak ere zer ospatu badu; 40 urte bete du taldeak! Mercero guneko erakusketa aretoan taldearen ibilbideko argazkiak, kamixetak... ikusgai dituzue.

Lerro hauetan kirolaren aldeko aldarririk ez eta hitz positiboak erabiliko ditugula erabaki dugu. Beraz, ospakizunekin eta zorion agurrekin jarrai dezagun. Kirol-familia ugaria honetan, kirol emaitzak kolore anitzetakoak izaten dira. Beti kirol emaitzei garrantzia kendu nahi izan diegu, baina aurten... ezin ditugu alboratu. Urte bikaina izaten ari da. Gure kirolariek hamaika kopa eta domina ekarri dizkigute herrira, bai Gipuzkoako txapelketetatik, bai Euskadiko Txapelketetatik eta baita txapelketa estataletatik ere. Gure lana beti ilusioz eta gogoz egiten dugun arren, halakoetan bizi-pozaz lanean jarraitzeko laguntzen digu.

Bukatzeko, bihotzez gure esker ona kirolari, senide, patrozinatzaile, bolondres eta bazkideei, zuen babesarengatik eta konfiantzagatik, zuei esker urterik urte kirolaren alde lanean jarrai dezakegulako.

Zorionak Ostadarreko kirolari guztiei.
Urte bikaina eskaini diguzue!!!

# Ilusión

Ilusión, esa es la palabra de este año. Seguimos con las celebraciones. A finales de año pusimos fin a las celebraciones del 40º aniversario del Club. Y este año celebramos el 10º aniversario de la sección de Marcha Nórdica. A pesar de que en la primera temporada los bastones con dragonera nos resultaban extraños, much@s se acercaron a conocer y practicar esta modalidad deportiva. La dinámica del grupo de marcha nórdica va más allá del deporte, ya que a través del deporte trabajan valores como la solidaridad, el auzolan, el euskera, la inclusión, entre otros. Seguid vuestro lema, "*paso a paso rompiendo barreras y transformando la sociedad junt@s".*

Beltza Rugby Taldea también celebrado su 40 aniversario. En la sala de exposiciones Mercero podéis ver fotos, carteles, camisetas... de la trayectoria del club.

En estas líneas hemos decidido utilizar sólo palabras positivas. Así que sigamos con las celebraciones. En esta familia numerosa, los resultados suelen ser dispares. Siempre hemos querido restar importancia a los resultados deportivos, pero este año... no podemos obviarlos. Está siendo un gran año. Nuestr@s deportistas nos han traído a la localidad un sinfín de copas y medallas, tanto de campeonatos de Gipuzkoa como de Euskadi y campeonatos estatales. Aunque siempre hacemos nuestro trabajo con motivación, estos resultados nos ayudan a seguir con más ilusión.

Agradecemos a tod@s l@s deportistas, patrocinadores, voluntari@s y soci@s vuestra confianza. Gracias a vuestro apoyo podemos seguir trabajando por el deporte local, año tras año.

Zorionak a tod@s l@s deportistas del Ostadar.
Nos habéis ofecido un gran año!!!

## KIROLARI ONENA
## Naroa Furundarena



Izugarria **NAROA FURUNDARENA URKOLA**k daraman ibilbidea. Txikitatik atletismon aritu da Amaia Andres eta Oscar Goikoetxea entrenatzaileekin; LOKE-n hasi eta egun Ostadarreko kirolaria. Azken denboraldietan pixkanaka jauzi luzeagoak egitea lortu du, markak hobetu ditu ez bakarrik Euskadi mailan baizik eta estatu mailan ere. Pista estaliko Espainiako txapeldun ordea da maila absolutuan, aurretik bakarrik Peleteiro dago. Bere kirol ibilbidea kontutan izanda eta azken urtean jauzi hirukoitzeko, zein luzera jauziko lorpenengatik Kirolari Onena saria Naroa Furundarena estatuko elitean dagoen atletak jasoko du. Ziur oraindik momentu pozgarri ugari eskainiko dizkiguzula. Naroa, zorionak!

## AUZOLAN SARIA
## Naizen

Aho batez erabaki dugu aurtengo Auzolan saria NAIZEN Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako adin txikiko transexualen familiak biltzen dituen elkarteari ematea agerikotasunaren alde burutzen ari den lanarengatik. *"Familiaz osatutako familia bat gara. Elkar babesteko eta zaintzeko sarea. Aurreiritzi eta ezjakintasunaren aurrean, ezagutza, ulermena, onarpena eta maitasuna zabaldu nahi ditugu".*

***Zer behar dute zuen seme-alabek?*** Guztiaren gainetik diren bezala onartu eta maitatu ditzagun behar dute, gainontzeko mutil eta neskek bezala.




Neska eta mutil hauek ikusiak izan daitezen behar dute, bestearen begiradan "izan".

Duela gutxi berritu den 4/2024 legeak, pertsona transen eskubideak jasotzen ditu arlo desberdinetan eta administrazioak horretarako lan egin behar du: estereotipoak gainditzen laguntzeko eta gizarte bidezkoagoa eta askeagoa izan dadin.

Aniztasuna balio erantsi gisa onartzean pertsona transen tratu- eta aukera-berdintasunean lortzeko neurri zehatzak hartu beharko ditu Administrazioak eta gu NAIZEN elkartetik horretan jarraituko dugu lanean.

## KROSA




XXVI.Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia ospatu genuen urriko azken igandean. XXV.edizioa ospatu ondoren , edizio lasaia espero genuen, baina azken astean Oriako zubia kroseko asteburuan bota behar zutela esan ziguten. Ondorioz, azken momentuan ibilbide aldaketa prestatu behar izan genuen. Aldaketa honen aurrean korrikalari eta rollerek izan zuten jarrera eskertzen dugu. Aurtengo edizioan betiko ibilbidea berreskuratuko dugu. Egungo zirkuitua prestatzea erronka bat izan da, izan ere Rolerrak gure artean izateko ibilbidean aldaketak egin behar izan genituen korrikalarien eta patinatzaileen elkarbizitza bermatzeko, batez ere lehendabiziko kilometroetan. Eta azken kilometroan korrikalari eta patinatzaileei ipar martxakoak gehitzen zaizkie. Hiru modalitateak lasterketa berean uztartzea eta finkatzea lortu dugu.

Krosa esan eta ziurrenik askori burura datorkigun lehen irudia Korrika Festakoa da. Azken edizioetan ume eta gazteen kopurua helduen probakoa gainditzen du. Esan, Korrika Festan neska eta mutilen partaidetza ia parekoa dela; hauxe bera lortu nahiko genuke helduenean. Egun, Lasarte-Oria Bai! probako hiru modalitateak kontutan hartuta emakumezkoen parte hartzea %27 da. Hau izango da gure hurrengo erronka.

## KORRIKA



Tipi-tapa, tipi-tapa, Korrika!!! Korrikako furgoneta herrian sartzen denean musika tope, mikroa eskuetan duenak Olatz dela, Intza dela herriko eragileak animatzen, kaleak lepo... eta lekukoa hartzeko momentua iristen denean... instan hori zirraragarria, desbribaezina da!

Ipar Martxa taldeak 10.urteurrena ospatzen duen honetan hartu du lekukoa, aspaldiko partez tarte lau batean, eskertzekoa.

Ostadar ere euskararen alde!!



# Adiós al módulo; kaixo a la nueva pista de Atsobakar

**Este año 2024 y tras 23 años entrenando en el módulo de Michelin se confirma que en la próxima temporada entrenaremos y competiremos en la nueva pista ubicada en Atsobakar. Un año más los entrenamientos en el módulo nos han dado muchas alegrías deportivas, tanto en campeonatos estatales como en los de Euskadi.**

La sección de atletismo de Ostadar tiene el firme convencimiento de que esta nueva ubicación en Atsobakar va a suponer un revulsivo para el atletismo en particular y para todo el deporte de Lasarte-Oria.

También este año ha sido trascendental para nuestro atletismo por muchos motivos, ya que nuestr@s atletas nos han hecho vibrar con su actitud y sus brillantes actuaciones en todas las competiciones tanto provinciales, autonómicas e incluso nacionales. De la misma manera, sus resultados han servido para aumentar considerablemente la presencia de nuestro deporte en los medios de comunicación y atraer a más aficionados y practicantes. Además, queremos poner en valor la primera medalla conseguida por una atleta de Ostadar en un Campeonato de España Absoluto: Naroa Furundarena nos ofreció un resultado único, brillante y emocionante. Este es un hecho que no solo nos debe llenar de satisfacción, sino que además nos da fuerzas renovadas a todos para seguir trabajando.

Quisiéramos agradecer asimismo el patrocinio que nos ha brindado Fundación Orona apostando con su ayuda a seguir trabajando en la misma línea.

Cerramos una etapa y comenzaremos la siguiente temporada a trabajar en la nueva pista de Atsobakar. La familia atlética de Ostadar está preparada e ilusionada para afrontar esta nueva situación y los nuevos retos que se nos presentan.

Esperemos que podamos seguir cumpliendo los objetivos deportivos marcados disfrutando de las nuevas instalaciones.



**Entrenando, formando, aprendiendo**

El objetivo de la sección de atletismo es formar a l@s atletas más allá del aspecto deportivo, inculcándoles valores como la igualdad de género, el respeto, el esfuerzo, el compañerismo, etc… En definitiva, formar a l@s atletas de una manera global. Por ello, puntualmente, l@s atletas más veteran@s realizan una labor de apoyo con las categorías inferiores.



La sección de atletismo tiene tres líneas de trabajo según la edad y objetivos de l@s atletas: escolares, federad@s y actividad lúdica no competitiva.

Quisiéramos destacar que actualmente tenemos 100 atletas en la sección y en el caso de los escolares son 70 los niños/as que entrenan con nosotros.

Una temporada más el Ostadar SKT y los atletas federados de la sección han competido en campeonatos estatales, visibilizando el trabajo que día tras día realizan. Además, y siendo fieles a nuestra filosofía seguimos formando y apoyando a aquellos colectivos que a nuestro entender merecen especial atención.

En esta línea, durante este año ha entrenado un grupo de 15 mujeres, las cuales bajo las órdenes de Amaia Andrés entrenan y compiten en carreras populares, siendo esta actividad un paso más que desde la sección damos a favor de la igualdad de género en el deporte.



Es importante facilitar el acceso al deporte a las mujeres a través del running y además garantizar entornos seguros para su práctica.

**Resultados deportivos más destacados**

En una primera fase y desde setiembre a marzo, los atletas escolares han competido en la zona de Donostialdea. Las pruebas eran de libre participación y la asistencia de nuestros deportistas a estas competiciones ha sido excelente, demostrando el compromiso de los mismos y de sus familias para la competición.

Podemos destacar las 4 medallas de Eider Redondo (80 mts, 150 mts, jabalina y longitud), la medalla de Lua Ferra en 2000 mts Marcha, las 2 de Oier Jauregi (60 mts y triple), la de Amélie Flores (peso) y muchos puestos de finalista.

En el Campeonato de Gipuzkoa Alevín de Centros, hemos conseguido la medalla de Oro en el relevo 4x60 mts femenino.

Quedan por celebrarse una jornada de los Campeonatos Escolares Individuales, una jornada por equipos y el Campeonato de combinadas.

En cuanto a l@s atletas federad@s

los resultados a destacar son muchos; una muestra de ello son los siguientes:




- Ctos. Esp. Absoluto Pista Cubierta: Naroa Furundarena 2ª en Triple (Ourense).
- Cto Esp Sub-18 Pista. Cubierta: Iraia Alkorta 21ª en 60 mts (Sabadell).
- Cto de Esp. Sub- 16 Pista Cubierta: Eider Redondo 8ª en Longitud (Valencia).
- Cto. de Euskadi Absoluto Pista Cubierta: Naroa Furundarena 1ª en Triple y Longitud; Oinatz Almagro 3ª en Triple; Oihana Igarriz 4ª en Peso y Unax Riezu 7º en Triple.
- Cto Euskadi Sub 16 Aire Libre de Combinadas: Eider Redondo 1ª y mínima para el Cto Esp Sub 16 Lleida.
- Cto de Euskadi Sub 16 Pista Cubierta: Eider Redondo 1ª en Combinadas.
- Cto Gipuzkoa Absoluto Pista Cubierta: Eider Redondo 1ª Longitud, Naroa Furundarena 1ª en Triple, Oinatz Almagro 1ª en Triple, Oihana Igarriz 2ª en Peso y June Garcia 3ª en Triple.



- 10 medallas en Cto Gipuzkoa Menores Aire Libre: Aiala Ramos 2ª Jabalina y 2ª Peso, Nora Manzanal 3ª Jabalina y 3ª Peso, Hodei Garcia 1º Jabalina, Oinatz Almagro 1º Longitud, June Garcia 2ª Triple, Iugatz Almagro 3ª Longitud, Kevin Pinza 2º Peso y Iraia Alkorta 3ª en 100 mts.

Y además, el 1 de mayo, 3 atletas del club acudirán con la selección Sub 20 a un encuentro internacional en St Juan de Luz: Aiala Ramos (jabalina), Eider Redondo (longitud) y Oinatz Almagro (longitud).




Como punto final, queremos mostrar nuestro agradecimiento a todas aquellas personas y entidades que nos han mostrado su incondicional apoyo para poder desarrollar nuestro trabajo. Y mención especial para las familias que siguen confiando en nosotros.

Destacar que la sección de atletismo está dirigida por Oscar Goikoetxea monitor nacional y por Amaia Andrés entrenadora nacional, ex atleta olímpica en Barcelona 92, actualmente es la directora del Área de Desarrollo de la RFEA y miembro de la Comisión de Igualdad de Género del Comité Olímpico Español (COE).

Agradecemos además, el premio otorgado por el Patronato de Deportes del Ayuntamiento de Lasarte-Oria a Amaia Andrés como reconocimiento a su trayectoria profesional y deportiva.

# Inklusioa oinarri, kirola bizitza





**Talde txiki bat gara**
**benetan anitza**
**Eman ta jasotzea**
**taldearen giltza**
**Etor zaitez gurera**
**hau da gure hitza:**
**INKLUSIOA OINARRI**
**KIROLA BIZITZA**













# BOLEIBOLA, HERRIAN LEKUA AURKITU DUEN KIROLA

Boleibol atalak jada bost denboraldi egin ditu gure artean; talde bakarrarekin hasi eta egun zazpi taldez osatuta egon da: bi infantil, kadete bat, jubenila eta emakumezko senior mailako bi talde eta gizonezko senior mailako taldea. Urte askoren ondoren, kirol honek gure herrian pixkanaka errotzen doa.

Kirol emaitzei dagokienez, Gipuzkoako txapelketan parte hartu duten 1go Infantila "A" eta senior taldeak zoriondu behar ditugu; izan ere, biek liga irabazi dute. Infantil "A" taldeak ligan ez du partidurik galdu, horri esker, Euskadiko topaketan egon dira. Eta denboraldia borobiltzeko Gipuzkoako play-off fasea jokatu ondoren, ligako txapeldunak izatea lortu dute. Izugarrizko denboraldia bi talde hauek burutu dutena!!

Seniorreko bi talde izan ditugu Euskal Ligan lehiatzen, neskena bat eta mutilena bestea. Euskal Ligako neskentzat hirugarren urtea izan da maila horretan; esfortzu handia egin dute bai entrenamenduetan bai partiduetan ere emaitza hobeak lortzeko. Maila egonkorrago bat erakutsi ahal izan dute, laugarren postua lortuz.



*Infantila*




*Infantila*

Jubenil, infantil B eta kadete taldeei dagokionez, Gipuzkoako txapelketan aritu dira. Batzuk, boleibola lehenengo aldiz probatu dute, beste batzuk, aldiz, haien mugak gainditzeko eta hobetzeko gai direla frogatu dute.

Kirol baten osagai garrantzitsuenak ere aurkitu ditugu: adiskidetasuna eta motibazioa. Jokalariek hasieratik beregan sinistu dute, bakoitzak dituen gaitasunetan zein taldearenean ere. Honela, denboraldian zehar topatu dituzten erronkei aurre egiteko tresnak eskuratu dituzte.

Kirol egitasmo honetan ondorengo enpresak ditugu bidai lagun: Bertako Igogailuak, Madafa Tattoo Studio, Usapal, eta Marbell ile apaindegia. Mila esker guztioi zuen babesa eta esfortzuarengatik.

Datorren urteari begira jarrita gaude... Eta, boleibolean hasi edo sakondu nahi duzuenentzat, ateak zabalik dituzue!



*Kadeteak*



*Jubenila*



*Gipuzkoa Ligako Seniorra*



*Euskal Ligako seniorra*



*Euskal Ligako seniorra*



# BAGOAZ TTIPI-TTAPA, URRATSEZ URRATS

Aurtengo ikasturtea ondo hasteko Otsagabian asteburu pasa egin genuen bertako gure ipar-martxalari lagunekin: Iratiko “Errekaidorra” ibilbidea, Otsagabiatik Muskildara igo eta Jonekin bisita gidatua egin genuen. Hilero irteera bat egiten jarraitzen dugu, aurtengoak hauek izan dira, besteak beste: Elorriaga/Deba, Brinkola/Ledazpi, Ormaiztegi/Mutiloa eta Lareo Urtegia. Irteerak sasoiez egin ahal izateko entrenatu behar da, horregatik astero entrenatzeko elkartzen gara.

**Asturiasetik barrena makilekin**

Ohitura onak mantendu behar direla eta, Pazko asteko irteerari eutsi egin diogu. Ruta Via de la Plata (Gijon/Sevilla) zatika egiteko asmoa dugunez, Asturiasetik hasi gara. Lau ibilbide eder egiteaz gain, turismo pixkat egiteko aukera ere izan dugu: Poblado minero de Bustiello, Centro de Interpretación del Horreo, Santa Cristina de Lena, Termas romanas Campo Valdes eta Veranes Villa romana bisitatzen asko ikasi dugu.

Denboraldiari Ostadarreko festarekin amaiera emango diogu, ekainaren 1ean. Baina, itzuliko gara!! Irailaren 5ean ekingo diogu denboraldi berriari.





**Kirolaz haratago**

Ipar martxako taldeko kideok ohiko jardueraz gain, hainbat ekimenetan parte hartzen dugu, Lasarte-Oria Bai! Krosa, euskararen maratoia, Aspanogiko piratekin batera eurek antolatutako Ipar martxa ibilbidean parte hartzen dugu, Mugitasunaren astean, Buruntzaldearen egunean...

Denboraldi honetan hastapen ikastaroak egin ditugu Ostadarretik; beraz, ipar martxa ikasi nahi baduzue, gurekin jar zaitezte harremanetan.

**10.Urteurrena**

Jada hamar urte igaro dira makilekin lehen urratsak eman genituenetik. Horregatik, festa handi batekin ospatuko dugu gure 10. urteurrena, irailaren 28an!

Urratsez urrats, hesiak hausten eta gizartea elkarrekin eraldatzen jarraituko dugu!



# HARRO EGOTEKO ATALA



Oraingoan bai, iritsi gara 2023-2024 denboraldiaren amaierara. Beste behin eskerrak eman nahi dizkiegu gure jokalari guztiei, erantzukizun garrantzitsua eta polita hartzen dutelako denboraldiro gure kamixetak dauzkan kolore urdina eta beltza Gipuzkoa eta Euskadi osotik defendatzen. Gure taldeetaz harro gaude.

Guztira 170 jokalari haritu dira saskibaloia egiten: saskibaloi eskolan 44 neska, entrenatzen eta topaketetan jolasten, 101 neska 9 talde ezberdinetan lehiatzen eta 15 mutil senior taldean.

Nesken katea aspaldi osatuta eta errotuta dago klubean. Uste dugu gure atalaren bidea zabaltzeko garaia dela; mutilekin lanean hasi nahi dugu. Urtero adin desberdinetako mutilak gerturatzen dira saskibaloian jolastera, baina ez dugu lortzen talderik osatzea. Saskibaloia gustuko duten mutil guztiak animatzen ditugu Ostadarrera hurbiltzera. Ea denon artean, pixkanaka, gizonezkoen saskibaloi-atala sortzea lortzen dugun.

Kirol emaitzei dagokienez, Infantil Urrea eta Kadete Urrea taldeek errendimenduko plazak mantentzea lortu dute; juniorrek berriz, ezin izan diote mailari eutsi, beraz, partaidetzara jaisten gara. Seniorreko neskek kategoria mantendu dute eta hau idazten ari garela, partaidetzako kadete taldeak errendimendura igotzeko aukera asko ditu.

Urtero bezala irteera ezberdinak eduki ditugu: Gipuzkoa Basket eta IDK ikustera joan gara eta joan den urtean bete genuen ametsa errepikatzeko aukera izan dugu, etxetik kanpo lehiaketa batera joatea; Kataluinara joan gara Marenostrum Txapleketan parte hartzeko. Izugarrizko esperientzia izan da, bai jokalariek, bai entrenatzaileek ederki pasa dugu.

Orain, denboraldi amaiera iritsi den arren, hurrengo denboraldia prestatzen hasiak gara. Baina, merezitako oporraldia hartuko dugu. Laster gure berri izango duzue.

1, 2 ta 3 OS-TA-DAR!

Irabazi arte... LA-SAR-TE.


Benjaminak


Alebinak


Parte-hartzeko Miniak


Errendimenduko Miniak


Parte-hartzeko Infantila


Parte-hartzeko Infantila - Beltzak


Parte-hartzeko Infantila - Urdinak



*Errendimenduko Infantila - Urrea*



*Parte hartzeko Kadetea*



*Errendimenduko Kadetea - Urrea*



*Errendimenduko Juniorra - Zilarra*



*Seniorra*




*Seniorra*

# MÁS QUE UN DEPORTE

El Rugby es más que un deporte; es una pasión, un estilo de vida, una familia.



La familia de Beltzak Rugby Taldea vamos viendo como esos chavales que con 8 años llegaban dubitativos a un deporte que desconocían; que algún amiguete les había dicho que se lo pasaban bien; que después de los partidos les daban "bocatas" y si hace frio y llueve, mejor se lo pasan jugando con el barro… Esos chavales y chavalas, crecen en este deporte; ayudan a recoger los elementos de entrenar, tales como conos, balones, postes de señalización, bidones de agua, etc.

Y los Sub 10 y Sub 12, entrenando juntos; desplazándose juntos a las competiciones; viendo el trabajo que realizan los mayores y las ganas que desarrollan los txikis, fomentan esa familia, ese compañerismo. El nivel de conocimiento del juego, aumenta exponencialmente en estas categorías; desde el principio se hace ver la labor arbitral como parte necesaria del juego; el trabajo de los veteranos para el tercer tiempo; la labor de los padres enseñando a l@s hij@s a cuidar las botas, a limpiarse el barro antes de ir a algunos vestuarios… forman parte de esa escuela de la vida, que te hace madurar, crecer, divertirte y respetar desde el primer momento en que participas en este deporte.



**Futuros rugbiers**

Nuestros Sub 14, orgullo de jugadores que dan el paso a un rugby de más juego en equipo; de más apoyo del compañero y menos individualidades. Con su experiencia en distintos campos, ya tienen forjadas amistades en otros clubs, y cuando terminan los partidos, al margen de resultados, es habitual ver a los jugadores sacándose fotos juntos; y abrazando cordialmente a esos compañeros de juego con distinta camiseta, con los que hacía unos instantes luchaban por la posesión del balón ovalado. La exigencia es mayor, pero los resultados, como personas, se ven amplificados por esa capacidad de estos futuros rugbiers

por crecer. Sus primeras convocatorias con la selección de Gipuzkoa, marcando un premio a un trabajo realizado durante todo el año; el despertar por esa curiosidad del VI Naciones que hablan los mayores; el lucir la camiseta de los All Blacks, o de Irlanda; todo ello, son detalles del crecimiento de nuestros chicos y chicas Sub 14, y además, a un gran nivel.



Entre los 14 y 15 años, nuestros jugadores se desatan con su juego. Es un verdadero placer ver la actitud con la que se enfrentan a los contrarios; esos placajes sin temor alguno; la melé, desde fuera y desde dentro, se vive con expectación. Y estamos hablando de la Euskal Liga, competición de nivel autonómico, donde además del juego, acompaña la emoción y nervios de viajes a campos míticos como Getxo, Gernika o Gamarra donde se disputan encuentros de la 2ª División de carácter Nacional. Nuestro trabajo con ellos, se ve recompensado por su actitud, por su compromiso; y empiezan a destacar algunos nombres entre las convocatorias de la Selección de Euskadi. Este año, se han destacado Lander Zabala y Eneko Sanchez que han podido participar varias veces en distintos campeonatos de Selecciones autonómicas de su categoría. Aunque algunos de sus compañeros, no están demasiado lejos de esas convocatorias.



Y lo más importante, disfrutan creciendo; aprenden, se forman, y valoran el trabajo que los clubs como Beltzak Rugby Taldea desarrollamos para su crecimiento.

Cuando los chavales forman parte del grupo de Sub 18, están desarrollando todo el trabajo que han estado realizando en las categorías inferiores. Esto



es RUGBY con mayúsculas; y nuestro club, da la talla. Estos grandes jugadores se han conseguido meter para jugar en los cuartos de final de la Euskal Liga, y de verdad que es muy complicado. Cuando la grada les aplaude después de un partido, y ellos corresponden devolviendo el aplauso, es una manifestación del agradecimiento a su esfuerzo y del respeto que sienten los jugadores hacia todos aquellos que les apoyan. El balón ovalado en sus manos, marca el camino de lo que está por llegar en poco tiempo; su paso a Senior.



Y los Senior culminan el trabajo; chicos con 18 años recién cumplidos, comparten campo con veteranos en una competición en la segunda División de la Euskal Liga, donde el objetivo es disfrutar. Cierto es que a veces los rivales son verdaderos colosos, o veloces atletas, y siempre se ven a los rivales como muy grandes; pero nuestros Beltzak aprenden desde el principio a dar la talla, a dejar en el campo su ADN; se implican y a base de esfuerzos, logran beneficiarse con el agradable sabor de las victorias logradas con trabajo y sudor.

La familia de los Beltzak, crece; algunos se marchan con lo aprendido y el gen de Beltzak dentro de ellos.

Uno de los nuestros, Alex Saleta, ha debutado este año con la Selección Absoluta Senior, llevando con orgullo la bandera de los Beltzak, desde Madrid a Georgia, pasando por Alemania y compitiendo como profesional en la División de Honor Estatal. Con la Absoluta lograron el Bronce Europeo en la competición.

**Un poco más mayores**

La Familia de Beltzak Rugby Taldea cumple 40 años desde su fundación en 1984. Creciendo. Intentando hacer llegar nuestro deporte al pueblo de Lasarte-Oria con la ilusión de poder disponer en breve de un nuevo campo para la práctica del juego con el balón ovalado; y seguir mostrando por qué nuestro Rugby, es más que un deporte.



# URTE BAT ZAHARRAGOAK, URTE BAT JAKINTSUAGOAK



Urte bat zaharragoak, urte bat jakintsuagoak. Esan daiteke gure bizi-proiektuaren zati bat mendia dela. Horrela, urteek aurrera egin ahala, gure planak gure gaitasun fisiko eta teknikora egokitzen ditugu. Urruti geratzen dira hamalau orduko ibilaldi luze haiek egiten genituen urteak. Luis Pedro Peña Santiago maiteak esango lukeen bezala “lo importante es seguir acudiendo a la montaña tras el señuelo de la libertad”.



*Gokyo, Pasaia*

Horrela elkartu ginen, beste behin ere, San Miguelera igotzeko Arruazutik, Joxian (Xalxas) jaunaren urratsen atzetik, urtero egiten genuen ibilaldia berreskuratuz. Guztiok Fatiren oroitzapena lagun izan genuen bertan balego bezala.



Norvegia, Georgia, Argentina, Kroazia... klubeko hainbat bazkidek urruneko mendietara joaten jarraituko dugu, etxekoak ahaztu gabe, Aralar, Aitzgorri, Durangaldea eta nola ez, Pirinioak. Iturri txikiak egarria kentzen du iturri haundiak bezala.

**Proiekzioak eta txistorra**

Azken urte hauetan antolatu gabe genituen proiekzioak berreskuratu ditugu “El Circo de Lescun, unas montañas de ensueño” Juan Mari Ansaren azken liburuaren aurkezpena eta argazki proiekzioarekin. Antolatzaile gisa oso eskertuak gaude jende asko urbildu baitzen Merceroko hitzaldi aretora. Ez ordea, urte amaierako Buruntzako zita klasikora, euria errudun, lehen aldiz txistorra sobran geratu zen. Aurten ere, abenduaren 31n, 10:00tik aurrera San Rokeko ermitan izango gara agertzen zaretenoi hamaiketakoa eskaintzeko.



*San Migueleko irteera*

**Eskalada eta rokodromoa**

Santa Barbaran linea berri bat ireki dugu, Maritximi eta beste bat irekitzeko asmoa dugu.

Eskaladaren harira, jakin, kiroletako arduradunekin hainbat bilera egin ondoren, Michelingo rokodromoa handituko dutela ziurtatu digutela, kiroldegi berrian ez baitago rokodromorik aurreikusita. Pena, instalazio berrietan rokodromoa ez egotea, pena eskaladako ikastaroak ez eskaintzea, pena kirol modalitate honek merezi duen atentzioa eta kariñoa ez izatea, pena...

Esandakoa, urtebete zaharragoa, urtebete...



*Santa Barbarako Maritximi bia berria*

# Ostadarreko bost mendizalek Euskal Mendi Federazioko urrezko intsignia jaso dute

**Juanito Egaña, Josu Agirretxe, Txema Contreras, Txomin Otaegi eta Alex Tetuanek Euskal Mendi Federazioko urrezko intsignia jaso dute, Tolosako Leidorren ospatu zen ekitaldian.**

2024an, mende bat bete du Euskal Mendizale Federazioak. 1924ko maiatzaren 18an jaio zen, Elgetan, Federación Vasconavarra de Alpinismo izenarekin. Urteurren hori ospatzeko ekitaldi-programa zabalaren barruan, EMFk ez ditu ahaztu nahi izan bere ibilbidearen zati handi batean leial izan zaizkion pertsona guztiak, bereziki gutxienez 40 urte jarraian federatuta daramatzaten mendizaleak. Euskal Mendizale Federazioak mendizale hauei urrezko intsignia ematea erabaki du. EMFn federatuta dauden 40.425 pertsonatatik 500 pertsonek soilik dute konpromiso hori, eta horietatik 5 Ostadar SKTko mendizaleak ditugu: Juanito Egaña, Josu Agirretxe, Txema Contreras, Txomin Otaegi eta Alex Tetuan. Gure federatuen artean baditugu 40 urte baino gehiagoz mendian hamaika urrats emandakoak, baina arrazoi desberdinak medio, ez dira 40 urtez jarraian federatuak egon.

Insigniarekin edo insigniarik gabe, zorionak guztioi!!!



# FUTBOL ESKOLA OS-TA-DAAAAR!!!!



**2012/2013/2014/2015**


























# DENBORALDI BIKAINA!

Futbol atalean 2023-2024 denboraldia oso interesgarria izaten ari da bai gizonezkoetan, bai emakumezkoetan ere. Emakumezkoen ohorezko mailako taldea denboraldi bikaina burutzen ari da, eta gizonezkoen preferente eta 1go jubenila igoera lortzeko borrokan ari dira. Zorte on gure talde guztiei denboraldiko azken txanpa honetan. Eta zer esan gure Futbol Eskolako jokalarietaz... Klubeko bizipoza dira: denboraldi berria noiz hasi zain urduri, lehen entrenoak, topaketak... Haiek dira atalaren etorkizuna eta kolorea.




*Erregionaleko Ohorezko Dibisioa*



*Kadeteak*



*Alebina*



*Lehenengo Infantila*



*Infantil Txikia*




*Infantil Haundi*



Lehenengo Kadetea



Lehenengo Kadetea



Ohorezko Kadetea



Lehenengo Jubenila



Lehenengo Jubenila



Ohorezko Jubenila



Erregionala




Preferentea



# Pedaleando con ilusión

Componentes de la sección de cicloturismo de Ostadar SKT en marzo han iniciado una nueva temporada con las pilas cargadas y con toda la ilusión del mundo. En esta edición serán alrededor de una decena de veteranos deportistas -la sección necesita la incorporación de más integrantes, gente más joven y la novedad de féminas-, tomarán parte durante los meses de marzo hasta octubre inclusive, con el descanso de agosto, de 31 salidas o excursiones con diferentes kilometrajes y desniveles que les llevarán por diferentes localidades del territorio guipuzcoano y navarro, principalmente. También celebrarán dos salidas especiales a zonas de Burgos y Jaka (acompañados de sus parejas) para fechas de mayo y junio, completando así una campaña muy amena y divertida.



Como todos los años, para la entrega de calendarios y mantener la camaradería celebran una cita gastronómica acudiendo a una sidrería y clausurarán la misma, allá por noviembre, con una comida a la que también asistirán sus parejas.

La cita para las diferentes salidas sigue siendo la puerta de la sede del Hogar del Jubilado en kale Nagusia y el horario varía según los meses: marzo (9:00 horas), abril, septiembre y octubre (8:30) y el resto de meses (8:00). Esta temporada recorrerán xxxxx km La relación de pruebas o excursiones es la siguiente: 3 marzo – Amezketa (60 kms.); 10 marzo – Artada Zumaia (60); 17 marzo –Hondarribia (60); 24 marzo – Aizarna (70); 31 marzo – Altzagarate (72); 7 abril – Zestoa (72); 14 abril – Zaldibia (74); 21 abril – Alto Itziar (78); 28 abril – Idiazabal (78); 5 mayo – Mandubia (90); 12 mayo – Regil Itzulia (86); 19 mayo – Ataun (100); 26 mayo – Bera (90); 2 junio – Zegama (100); 9 junio – Deba (90); 16 junio – Ziburu (86); 23 junio – Larraitz Itzulia (80); 30 junio – Iraeta (68); 7 julio – Azkoitia (90); 14 julio – Ezkio (90); 21 julio – Segura (84); 28 julio – Lierni (92); 1 septiembre – Olaberria Irun (64); 8 sept. – Atallu (72); 15 sept. – Bedaio (68); 22 sept. – Orexa (60); 29 sept. – Zumaia (60); 6 octubre - Berastegi (60); 13 octubre – Elkano (55); 20 octubre – Getaria (48); 27 octubre – Asteasu Xoxoka (40).

Para todos los que estén interesados en integrarse en esta sección de cicloturismo pueden dirigirse a la oficina de Ostadar SKT para pedir más información.



## BAZKIDEAK

Gure bazkideen babesa ezinbestekoa da Ostadar SKT-ko kirol egitasmoa gauzatu ahal izateko. Horregatik, gurekin zaudetenoi eskerrak bihotzez zuen laguntza ematen jarraitzeagatik. Eta oraindik bazkide ez zaretenoi, kirol proiektu honen parte izatera gonbidatzen zaituztegu. Bulegoan informazioa jaso dezakezue. Urtero gabonetan otar bat zozketatzen dugu bazkide guztien artean. Aurten, Maria Mungia del Pozori egokitu zaio. Zorionak!



## BOLOS Y TOCA

Los bolaris de la sección recorren los diferentes pueblos de la provincia llevando nuestro nombre en las diferentes tiradas, ilusión no falta. En mayo pudimos disfrutar de la tirada del Campeonato de bolos y toca de Gipuzkoa, en el bolatoki de Michelín. En el ámbito local siguen organizando las tiradas de las fiestas de San Pedro, a la que os animamos a participar tanto en bolos como en toca. Hacemos un llamamiento a quien lo dese a que se acerque al bolatoki y pruebe.



## PORRA

Aurten lauak baietz! proposamenak iaz izan zuen harrera ikusita, aurten ere, lau porrak antolatu ditugu: Euskal Herriko Itzulia, Italiako Giroa, Frantziako Tourra eta Espainiako Vuelta.

Dagoeneko Euskal Itzulia eta Giroko porra egin ditugu. Hurrengoa, Tourrekoa izango da, San Pedro jaietan. Ekainaren 29an, larunbatean, 21:00etan jasoko ditugu tabernetako boletoak, on-lineko boletoak berriz, igande eguerdira arte egin ahal izango dira, 13:00ak arte. Ez utzi azken momenturako eta ez ahaztu boletoa betetzeaz, bestela "onenaren sarian" ezin izango duzue parte hartu eta ez da txantxa, 1.600€!

Vueltako porra abuztuaren 17an hasiko da. Honen berri ere emango dugu.

Porrari buruzko informazio guztia gure web gunean aurkituko duzue, www.ostadarskt.eus-en, eta bertan boletoa on-line bete dezakezue ere.



bertako
igogailuak | ascensores

PAINTBALL
SINCE 2008
DONOSTI

MADAFA®
TATTOO STUDIO

Buenetxea
CAFE BAR

telepizza
Lasarte

ARKUPE
Taberna

VENTANAS SAN MIGUEL

Ges
aseguruak
Pablo Muticzabal kalea 2, 1goa
Lasarte-Oria
Tel: 943 365 899
e-mail: cristina_arteaga@ges.es

TABERNA - JATETXEA
AVENIDA

ETXEZARRETA
HARATEGIA-URDATEGIA
EUSKO LABEL
KALITATEA
Hipodromo Etorbidea - Lasarte-Oria - Tel.: 943 361 379

Usapal
WWW.USAPAL.NET

FUTBOL TXOKOA
TABERNA

XUHAKAN
TXAKUR ELKARTEA
Tlf: 600338804
xuhakantxakurelkartea@gmail.com

Bronx

Incoman S.L.
ELEKTRIZITATEA
MANTENTZE-EKIPOAK
Tel.: 943 37 31 98 info@incoman.es

Marbell
Peluqueria y Estética

Noelia Calero
OSTEOPATIA • FISIOTERAPIA
Uistin 19
20160 Lasarte-Oria
943 24 91 26 · 688 815 089
info@noeliacalero.com

Abend
Cerveceria Alemana
Restaurante
Pablo Mutiozabal kalea, 5
LASARTE-ORIA

- TABERNA -
ILARGI

Animación sociocultural con corazón.
Para familias multiespecie, amantes de los animales.
Contacto:
620-19-34-47. Carmen.

TXARTEL · TXOKO
Jatetxea / Restaurante
Zirkuitu ibilb., 1 - 943 37 01 92 - www.txarteltxoko.com

FRUTAS RUIZ
Geltoki, 16 - LASARTE-ORIA - Tel.: 943 36 13 04

M.BERASATEGI
KAFE & TEA

GENERALI
HIPODROMO ETORBIDEA 2
LASARTE-ORIA
688 695 986

Patxi Larrañaga
HARATEGIA
www.patxilarranaga.com
Tel.: 943372668
Kale Nagusia, 39 LASARTE-ORIA

COPILASARTE
FOTOCOPIAS B/N Y COLOR DIGITAL
Encuadernaciones - Plastificados
Material Informático y de Oficina
Estampación Textil
Imprenta rápida
PLOTEADO, ESCANEADO Y COPIAS DE PLANOS B/N Y COLOR
Kale Nagusia, 34 - bajo 1 - 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 366 930 • Fax: 943 366 931
copilasarte@euskalnet.net

LUIS CAR
autobusak

MUEBLES ZUBI
Geltoki Kalea, 21 • Tel.: 943 36 24 67 • Fax: 943 37 27 94
20160 LASARTE - ORIA (Gipuzkoa)
E-mail: mueblezubi@hotmail.com

BAR GENESIS
DESAYUNOS • PINCHOS • BOCATAS
Zumaburu, 11 LASARTE-ORIA
Tel: 661 575 565

SEGUROS Ges
Pablo Muticzabal kalea 2, 1goa
Lasarte-Oria
Tel: 943 365 899
e-mail: cristina_arteaga@ges.es

I. Urruzola
aroztegia
www.iurruzola-aroztegia.com
urruzolaaroztegia@gmail.com
943 371 200 / 615 784 238
Oria etorbidea 4, behea. 20.160 Lasarte-Oria

TABERNA
Eguzki

kima
MASAJE TERAPEUTICO Y DEPORTIVO
MASAJE LEKUA
GOYO MARTIN
XABIER CARBAYEDA
C/. Nagusia, 44 - bajo
Tel.: 943 36 61 97
20160 LASARTE

bardají
Administracion de fincas e Inmobiliaria
Finka administrazioa eta Etxesalmenta

Tiburtzio
Artizar

SOCIEDAD LASARTEARRA CGD
Erribera 10, trasera 943362997

TXOKO
TABERNA

Patricio

MUSIKA FAKTORIA .eus
DENDA
ENTSEIU GELAK
ZUZENEKOAK
ZERBITZU TEKNIKOA

Bar-restaurante
Escalerilla
Geltoki kalea,11 (Lasarte-oria) Tf: [illegible]

IÑAKI TABERNA
99-VIII-30
PINTXO HOTZ ETA BEROAK - BOKATAK
Iñigo de Loiola, 4 - LASARTE-ORIA - Tel.: 943 365 501

Hotel
txartel

Isaac Farré
PHOTOGRAPHY

VIÑA DEL MAR
CAFETERIA-KAFETEGIA
Ola kalea, 2 bajo
20160 Lasarte-Oria
Tel. 943 362 768

Lukainkategi
ERRETEGIA
Aingeru Zaindaria
AÑORGA auzoa - DONOSTIA
943 37 14 44

NOAOA
BIDAIAK
943 373 613 - www.noaoa.eus

Okela
CARNICERIA • HARATEGIA
Karmelo Etxegarai, 10 - DONOSTIA - Tel.: 943 31 40 43
Nagusia 41 - LASARTE - ORIA - Tel.: 943 36 39 12
Nafarroa kalea 3 - LEGAZPIA - Tel.: 943 73 18 25

ORMAZABAL
OPARI GAIAK
LORADENDA

FERNANDEZ
Ehunak
Kale Nagusia, 2
Lasarte-Oria
Tel. 943 361 607

Jalgi
KAFE-ANTZOKIA

bikain
diseinu grafikoa
www.bikain.info

# ETORRI GURERA!!!

## Anímate a hacer deporte con nosotr@s!




**24/25 DENBORALDIRAKO IZENA EMATEKO EPEA:**
**ekainaren 1etik 16ra**

**INSCRIPCIONES 24/25:**
**del 1 al 16 de junio**

www.ostadarskt.eus | ostadarskt | ostadarskt

OSTADAR
S.K.T.

**OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAK**
eskerrak eman nahi dizkie, TXINTXARRI aldizkariari, Isaak Farréri, gure babesle eta bazkide guztiei ere, denboraldi honetan eskainitako laguntzarengatik.

Lasarte-Orian Guk Kirola euskaraz